

XUXEN InDesign

Eskuliburua



Egileak:



ixa.si.ehu.es



www.eleka.net

Aurkibidea

1	Hitzaurrea.....	3
2	Eskakizunak.....	4
2.1	Sistema eragilea.....	4
2.2	Beharrezko softwarea.....	4
3	Instalazioa.....	5
4	Desinstalazioa.....	7
5	Erabilera.....	8

1 Hitzaurrea

Dokumentu hau XUXEN InDesign euskarazko ortografia zuzentzailearen eskuliburua da.

2 Eskakizunak


2.1 Sistema eragilea

Windows XP edo Windows Vista.

2.2 Beharrezko softwarea


Adobe InDesign CS3.

3 Instalazioa




1 Irudia: Instalatzailearen lehen pantaila

XUXEN InDesign instalatzeko klik bikoitza egin instalatzailean. Instalazioa automatikoa da. Instalazio prozesuak 1. , 2. eta 3. irudietan agertzen diren pantailetan zehar eramango gaitu.



2 Irudia: Instalazioaren helburua aukeratzeko




3 Irudia: Instalazioa amaitu da

4 Desinstalazioa


XUXEN desinstalatzeko prozedura edozein Windows aplikazio desinstalatzeko jarraitu beharreko berbera da: nahikoa da “**kontrol-panel**”eko “**Gehitu edo kendu programak**” leihoan *XUXEN InDesign* aukeratu eta desinstalatzailearen pausoak jarraitzea.

5 Erabilera

Ortografia zuzentzailea erabiltzeko, zuzendu nahi den testua euskaraz dagoela adierazi behar zaio InDesign-i. Horretarako bide errazena euskaraz dagoen testua aukeratu eta InDesign-en goiko tresna-barrako hizkuntza zerrendan “Vasco” aukeratzea da, 4. eta 5. irudietan azaltzen den modura.




4 Irudia : Español jartzen duen zerrenda zabaldu behar da



5 Irudia: Zerrendaren amaieran "Vasco" aukeratu behar da

Hau egin eta gero, idatzi ahala hitzak zuzentzeko eta okertzat jotzen dituenak gorritz azpimarratzeko “**Edición -> Ortografía ->Revisión Ortográfica Dinámica**” aukeratu behar dugu.




6 Irudia: Idatzi ahala gorritz azpimarratzeko, aukera hau aktibatuta eduki behar da

Esan bezala, okertzat jotzen diren hitzak, gorriz azpimarratuko dira. Hauen zuzenketa proposamenak lortzeko, sagua gainean jarri eta eskuineko botoia sakatu. Proposamenen zerrenda aterako da.


Kaizo zer moduz?

7 Irudia: "Kaizo" okertzat jo du
XUXENek



8 Irudia: Saguko eskuineko botoia sakatuta, proposamenen zerrenda agertuko da

Okertzat jotzen duen hitza zuzena dela uste badugu eta hurrengo zuzenketetan ere zuzentzat jotzeko, erabiltzailearen hiztegian sartu dezakegu hitza. Horretarako “**Añadir xxx al diccionario del usuario**” aukeratu eta agertzen den leiho berrian “**Añadir**” botoia sakatu.



9 Irudia: "Añadir" botoia sakatuta, "Kaizo" hitza gure hiztegian gordeko dugu